

LANEKO ISTRIPUAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN 2019. URTEKO TXOSTENA

OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Laneko istripuak Euskal Autonomia Erkidegoan. 2019. Urteko txostena



Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



Barakaldo, 2020

Izenburua: Accidentes de trabajo en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Informe 2019 /
Laneko istripuak Euskal Autonomia Erkidegoan. 2019. Urteko txostena.

Edizioa: 1.a, 2020ko iraila.

Ale-kopurua: 50 ale.

© Euskadiko Autonomia Elkarteko Administrazioa/
Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Argitaratzailea: OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales /
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
Dinamita Bidea zg. - 48903 Barakaldo (Bizkaia).

Egilea: María del Carmen Del Horno Etxaniz (Estatistikaren arduraduna. Osalan)

Internet: www.osalan.euskadi.eus

Fotokonposizioa eta Inprimaketa: Fotocomposición Ipar, S. Coop.
C/ Zurbaran, 2, 4 - bajo, 48007 Bilbao (Bizkaia)

Depósito Legal: LG BI 01345-2020

AURKIBIDEA

1. Metodologia	13
2. Lanaldian eta <i>in itinere</i> gertatutako lan-istripuak.....	17
3. Laneko istripuak izateko arriskua sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren, jarduera-sektorearen eta kontratu motaren arabera.....	25
4. 2000-2019 bilakaera.....	28
5. Ondorioak	33
I. Eranskina. EAEko Laneko Istripuen Taulak. 2019. urtea.....	35
II. Eranskina. EAEko Laneko Istripuen Grafikoak. 2019. urtea	91



TAULEN AURKIBIDEA

LI-1 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripu kopurua larritasunaren eta jarduera sektorearen arabera. EAE, 2018-2019.	36
LI-2 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako bajadun istripuen intzidentzia adierazlea larritasunaren eta jarduera sektorearen arabera. EAE, 2018-2019	38
LI-3 taula.	Bajadun istripu kopurua, ez traumatikoak eta larritasunaren eta jarduera sektorearen arabera. EAE, 2018-2019.	40
LI-4 taula.	Bajadun istripu intzidentzia adierazlea, ez traumatikoak, larritasunaren eta jarduera sektorearen arabera. EAE, 2018-2019.	41
LI-5 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripu kopurua larritasunaren, jarduera sektorearen eta lurraldearen arabera. 2018-2019.	42
LI-6 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripu kopurua larritasunaren arabera. EAE, 2018-2019	46
LI-7 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako LI intzidentzia indizea bajarekin eta larritasunaren arabera. EAE, 2018-2019.	47
LI-8 taula.	Lanaldian gertatutako bajadun istripu kopurua, ez traumatikoak, eta larritasunaren arabera. EAE, 2018-2019.	47
LI-9 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako LI kopura, larritasunaren eta lurraldearen arabera. 2018-2019.	48
LI-10 taula.	<i>In itinere</i> gertatutako istripuen intzidentzia adierazlea, larritasunaren eta lurraldearen arabera. 2018-2019.	48
LI-11 taula.	Bajadun istripu kopuru ez traumatikoak, larritasunaren eta lurraldearen arabera. 2018-2019.	50
LI-12 taula.	Bajadun istripuen intzidentzia adierazlea, ez traumatikoak, larritasunaren eta lurraldearen arabera. 2018-2019	50
LI-13 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripu kopurua larritasunaren eta lurraldearen arabera. 2019	51
LI-14 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripuen intzidentzia adierazlea, larritasunaren eta lurraldearen arabera. 2019	51
LI-15 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripu kopurua, ez traumatikoak, larritasunaren eta lurraldearen arabera. 2019	52

LI-16 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripu kopurua, larritasunaren eta langileen sexuaren arabera. EAE, 2019.....	52
LI-17 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako LI kopurua, ez traumatikoak, larritasunaren eta langileen sexuaren arabera. EAE, 2019.....	53
LI-18 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripuen intzidentzia adierazlea larritasunaren eta langileen sexuaren arabera. EAE, 2019.....	53
I-19 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripu kopurua, larritasunaren eta langileen adin tartearen arabera. EAE, 2019.....	53
LI-20 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripuen intzidentzia adierazlea, larritasunaren eta langileen adin tartearen arabera. EAE, 2019 ...	54
LI-21 taula.	Lanaldiko bajadun istripuen intzidentzia kopurua eta adierazlea, larritasunaren arabera eta langileen adin tarteko 11 talderen arabera. EAE, 2019.....	55
LI-22 taula.	Bjadun eta <i>in itinere</i> gertatutako istripu indizearen kopurua eta adierazlea, larritasunaren arabera eta langileen adin tartedun 11 taldeen arabera. EAE, 2019.....	56
LI-23 taula.	Lanaldian/ <i>in</i> gertatutako bajadun istripu kopurua, larritasunaren eta langileen adin tartearen arabera. EAE, 2019.....	57
LI-24 taula.	Lanaldian gertatutako bajadun istripu kopurua eta adierazlea, larritasunaren eta kontratu motaren arabera. EAE, 2019.....	58
LI-25 taula.	<i>In itinere</i> gertatutako bajadun istripu kopurua eta adierazlea, larritasunaren eta kontratu motaren arabera. EAE, 2019.....	59
LI-26 taula.	Lanaldian gertatutako bajadun istripu kopurua, kontratu motaren eta adin taldearen arabera. EAE, 2019.....	60
LI-27 taula.	<i>In itinere</i> gertatutako bajadun istripu kopurua, larritasunaren, kontratu motaren eta adin taldeen arabera. EAE, 2019.....	60
LI-28 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripu kopurua, larritasunaren eta lanpostuan egondako antzinakotasunaren (betetako hilabeteak edo urteak) arabera. EAE, 2019.....	62
LI-29 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripu kopurua larritasunaren eta lanbidearen arabera. EAE, 2019.....	64
LI-30 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripu kopurua larritasunaren eta kontratazio motaren arabera. EAE, 2019.....	68
LI-31 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripu kopurua larritasunaren eta arriskuen ebaluazioaren arabera. EAE, 2019.....	68



LI-32 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako istripu kopura, larritasunaren eta prebentzio modalitatearen arabera. EAE, 2019	69
LI-33 taula.	Lanaldian gertatutako bjadun istripu kopurua, larritasunaren eta desbideratzearen arabera. EAE, 2019	70
LI-34 taula.	Lanaldian gertatutako bjadun istripu kopurua, larritasunaren, formaren edo istripuaren kontaktuaren arabera. EAE, 2019 ...	72
LI-35 taula.	Lanaldian gertatutako bjadun istripu kopurua, larritasunaren arabera eta «trafikokoak» bezala sailkatutakoak EAE, 2019 ...	74
LI-36 taula.	<i>In itinere</i> gertatutako bjadun istripu kopurua, larritasunaren arabera eta «trafikokoak» bezala sailkatutakoak EAE, 2019 ...	74
LI-37 taula.	Poissonen ereduari jarraiki kalkulaturako intzidentzia adierazle- leen arrazoiak, lanaldian baja izan zutenak, 2019	75
LI-38 taula.	Poissonen ereduari jarraiki kalkulaturako intzidentzia adiera- zleen arrazoiak kaltegarritasunaren arabera bajarekin eta la- naldian, 2019	75
LI-39 taula.	Gutzizko bajak izan zituzten istripu kopurua, lanaldian eta « <i>in itinere</i> » gertatutakoak eta 2009ko oinarridun garapena. EAE 2004-2019	76
LI-39-bir taula.	Gutzizko bajak izan zituzten istripu kopurua, lanaldian eta « <i>in itinere</i> » gertatutakoak eta 2019ko oinarridun garapena. EAE 2000-2019	77
LI-40 taula.	Bjadun istripuen intzidentzia kopurua (milakoen zenbate- koan), lanaldian eta « <i>in itinere</i> » gertatutakoak eta 2009ko oi- narridun garapena. EAE 2004-2019	78
LI-40-bir taula.	Bjadun istripuen intzidentzia kopurua (milakoen zenbate- koan), lanaldian eta « <i>in itinere</i> » gertatutakoak eta 2019ko oi- narridun garapena. EAE 2000-2019	79
LI-41 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako intzidentzia adierazlea (m/z) jarduera lurraldearen eta garapenaren arabera eta 2009ko oinarriarekin. EAE 2009-2019	80
LI-41-bir taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako intzidentzia adierazlea (m/z) jarduera lurraldearen eta garapenaren arabera eta 2019ko oina- rriarekin. EAE 2009-2019	82
LI-42 taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako intzidentzia adierazlea (m/z) jarduera sektorearen eta garapenaren arabera eta 2009ko oi- narriarekin. EAE 2009-2019	84

LI-42-bir taula.	Lanaldian/ <i>in itinere</i> gertatutako intzidentzia adierazlea (m/z) jarduera sektorearen eta garapenaren arabera eta 2019ko oinarriarekin. EAE 2009-2019.....	86
LI-43 taula.	Bajadun istripuen kopurua trafiko bezala adierazleak eta 2009ko oinarriarekin. EAE 2009-2019	88
LI-43-bir taula.	Bajadun istripuen kopurua trafiko bezala adierazleak eta 2019ko oinarriarekin. EAE 2009-2019	88



GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. irudia.	Bajadun istripu kopurua. EAE, 2000-2019	92
2. irudia.	Bajadun istripu intzidentzia indizea milako zenbatekoan. EAE, 2000-2019	92
3. irudia.	Lanaldian gertatutako bajadun istripu kopurua, sexuaren arabera. EAE, 2009-2019	93
4. irudia.	Lanaldian gertatutako bajadun istripuen intzidentzia adierazlea, sexuaren arabera, milako zenbatekoan. EAE, 2009-2019	93
5. irudia.	<i>In itinere</i> gertatutako istripu kopurua, sexuaren arabera. EAE, 2009-2019	94
6. irudia.	<i>In itinere</i> gertatutako istripuen intzidentzia adierazlea, sexuaren arabera, milako zenbatekoan. EAE, 2009-2019	94
7. irudia.	Lanaldian gertatutako bajadun istripu kopurua, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera, 2009-2019	95
8. irudia.	Lanaldian gertatutako bajadun istripu intzidentzia adierazlea, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 2009-2019	95
9. irudia.	<i>In itinere</i> gertatutako bajadun istripu kopurua, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 2009-2019	96
10. irudia.	<i>In itinere</i> gertatutako bajadun istripu kopurua, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 2009-2019	96
11. irudia.	Lanaldian gertatutako istripu kopurua, sexuaren eta jarduera sektorearen arabera. EAE, 2009-2019	97
12. irudia.	Lanaldian gertatutako istripuen intzidentzia adierazlea, sexuaren eta jarduera sektorearen arabera, EAE 2009-2019	97
13. irudia.	<i>In itinere</i> gertatutako bajadun istripu kopurua, sexuaren eta jarduera sektorearen arabera. EAE, 2009-2019	98
14. irudia.	<i>In itinere</i> gertatutako bajadun istripuen intzidentzia adierazlea, sexuaren eta jarduera sektorearen arabera. EAE, 2009-2019	98
15. irudia.	Lanaldian gertatutako bajadun istripu kopurua, sexuaren eta adin taldearen arabera. EAE, 2009-2019	99

16. irudia.	Lanaldian gertatutako bjadun istripuen intzidentzia adierazlea, sexuaren eta adin taldeen arabera. EAE, 2009-2019	99
17. irudia.	<i>In itinere</i> gertatutako bjadun istripu kopurua, sexuaren eta adin taldearen arabera. EAE, 2009-2019O	100
18. irudia.	<i>In itinere</i> gertatutako bjadun istripuen intzidentzia adierazlea, sexuaren eta adin taldeen arabera. EAE, 2009-2019O	100
19. irudia.	<i>In itinere</i> eta lanaldian gertatutako trafiko istripu kopuru, bjadunak, sexuaren arabera. EAE, 2009-20191	101
20. irudia.	<i>In itinere</i> gertatutako bjadun istripu kopurua, sexuaren arabera eta trafikoarekin lotuta. EAE, 2009-20191	101

1.

Metodologia

1.1. Datu-iturria

Txostena egiteko erabili den datu-iturria IGATT aplikazioaren datu-basea izan da, lan-istripuen parteak telematikoki aurkezteko eta izapidetzeko, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Seguratasuneko sailburuaren 2003ko azaroaren 20ko Aginduaren bidez onetsia. Azaroaren 19ko TAS/2926/2002 Aginduak ezarritako lan-istripuen parteen eredu berrietan izapidetutako datuak jaso dira bertan.

IGATT aplikazioaren datu-basea lan-istripuen hileko aurrerapen-txostenak (OSALANen webgunean eskuragarri: <https://www.osalan.euskadi.eus/zer-egiten-dugu/-/estatis-tika-azterlanak/>) sortzeko erabiltzen den bera da. Nolanahi ere, aipatzekoa da txosten honetan aurkeztutako istripuen balioek eta hileko txostenen balioek ezin dutela guztiz bat etorri; izan ere, batetik, IGATTeko lan-istripuen erregistroa base bizia da, eta, bertan, erregistratutako parteak aldatu eta ezeztatu egiten dira. Bestetik, alde edo diferentzia bat dago hileko aurrerapen-txostenetan eta urteko txostenean erabilitako erreferentzia-daten artean. Hileko txostenetan, istripu-partearen izapidetze-data hartzen da erreferentzia gisa; hala, hileko aurrerapen-txosten bakoitzean, erreferentziako hilabetean **komunikatutako** istripuen parteak hartzen dira kontuan.

Ostera, urteko txostenetan, istripu-partearen bajaren data da data garrantzitsua: ustiapenaren unera arte komunikatu diren eta erreferentziako urteko baja-data duten istripu guztiak hartzen dira kontuan –kasu honetan, 2019koak–.



1.2. Aztertu beharreko datu multzoa: denbora-tartea eta hautaketa-irizpideak

IGATT aplikazioari jakinarazitako eta Lan Zuzendaritzak balioztatutako lan-istripuak (LI) sartu ziren. Hautaketa-irizpideak honako hauek izan ziren:

- Istripu-partearen data-baja, 2019/01/01 eta 2019/12/31 artekoa, data biak barne.
- Istripu berriaren partea (kanpo utzi ziren birgaixotzeen parteak).

Istripu-seriearen ateratze-kontsulta 2020ko apirilaren 20an egin zen.

1.3. Aztertutako populazioa

Gertatutako istripuak aztertzeko aintzat hartu den populazioaren ezaugarriak hauek dira: EAEko langileak dira, Gizarte Segurantzari afiliatuak, azterlan-aldietan alta-egoez aritzen diren, eta laneko kontingentzien aurrean babeserik ez duten Gizarte Segurantzaren edozein erregimenetan.

2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, hauek ere sartu dira azterketan: Erregimen Orokorreko Etxeko Langileentzako Sistema Berezi berriko langileei eragin dieten lan-istripuak, abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen 39. xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

2018ko abenduaren 31ra arte, laneko gertakizunen aurreko babeserik gabeko biltzea (ordainketa) kotizatzailearen borondatezko erabakia zen autonomoen araubidean. Alabaina, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, erregimen horrek araubide orokorraren estaldura berak ditu (salbuespen batzuk izan ezik), eta, horrenbestez, egoera horretan dauden langileak ere aztergai dira txosten honetarako, eta jakinarazten dituzten istripuak ere daudela jasotzen dira.

2019an Gizarte Segurantzari afiliatuta zegoen populazioa hartu da oinarri, honako aldagai hauen arabera: erregimena, lurralde historikoa, jarduera ekonomikoa, adina, sexua eta kontratu mota.

1.4. Txostenean erabilitako maiztasun- eta arrisku-neurriak

2019. urteko lan-istripuen kasuan, hiru neurri mota erabili dira:

Aztertutako denboraldian gertatutako istripuen kopurua edo zenbaketa. Taula batean jaso dira, intereseko zenbait aldagaitan banatuta.

1.4.1. Aldi horretako intzidentzia-tasa edo -indizea (aldi horretako azken hilabeteen pilatua)

Toki eta aldi jakin bateko gertaeren maiztasuna eta intentsitatea neurtzen dituzte tasa edo indize horiek. Honela adierazten da: leku eta denbora-tarte jakin batean gertatutako lan-istripuen kopurua, mila langileko.

1.4.2. Arriskuaren neurriak

Aurreikusitako **arriskua**, intzidentzia-indizeen arrazoiaren arabera kalkulatuta. Honela interpretatu daiteke: zenbat aldiz maizago den istripu-tasa langileen azpitalde batean, erreferentziako taldearekin alderatuta.

Intzidentzia-indizeen arrazoiak kalkulatu ziren, honako aldagai hauek oinarri hartuta: langileen sexua, adina, kontratazio mota, lurraldea eta istripua gertatzean langilearen lantokia zen enpresaren jarduera-sektorea. Faktore guztiak batera aztertzeko, erregresio-eredu bat erabili da hau neurtzeko: faktore bakoitzak, aztertutako gainerako faktoreak kontuan hartu gabe, zer eragin izan zezakeen istripua gertatzeko edo ez gertatzeko.

2019ko lan-istripuen intzidentzia-indizea modelizatu da, Poissonen erregresio baten bidez, honako aldagai hauek egokituta: sexua, adin-taldea (16-24, 25-44 eta 45 eta gehiago), istripu-partea zein lurraldetan erregistratu den, istripua gertatu den enpresaren jarduera-sektorea eta istripua izan duen langilearen kontratu-mota (kontratu mugagabea / aldi baterako kontratua); horrez gainera, langile autonomoak gehitu dira hirugarren kontratu «mota» gisa, Gizarte Segurantzaren haiei dagokien erregimenaren arabera. Lanaldian baja hartzea eragin zuten lan-istripuei lotutako eredu batzuk egokitu ziren: lan-istripu guztietarako eredu bat; gizonezkoek izandako istripuen azpimultzorako beste eredu bat, eta emakumezkoek jasandako istripuen azpimultzorako hirugarren eredu bat. Horrez gainera, istripu larrietarako eta heriotza-istripuetarako eredu bat doitu zen, bai eta istripu arinetarako beste bat ere. Azken eredu horren eta lehenik aipatutakoaren emaitzak ia-ia berberak dira.

Arrisku erlatiboa honela ateratzen da: intzidentzia-indizeen arrazoiak, edo eredian lortutako dagokion koefizientearen esponentziala, gainerako aldagaien arabera egokituta.

1.4.3. Zenbaki indizeak

Neurri estatistiko horri esker, posible da magnitude baten edo gehiagoren gorabeherak edota aldaerak aztertzea, betiere denboraren arabera, hots, oinarri-urteko balioaren arabera. Neurri hori erabili izan da lanaldian eta/edo «*in itinere*» gertatutako istripuak neurtzeko, zenbait aldagaien arabera.

2017. eta 2018. urteetako txostenetan, 2009a erabili zen oinarri-urtetzat. 2019ko txosten honetan ere, urte hori bera mantendu da, baina, era berean, 2019. urtea oinarritzat



hartzen duten serieetako taulak gehitu dira, aurrerantzean, oinarri-urtea hurbilago egon dadin txostenaren erreferentziazko urtetik, eta, beraz, lan-testuingurutik. Gainera, bada beste bi faktore, etorkizunari begira oinarri-urtea aldatzea komenigarri egiten dutenak: alde batetik, aurrez aipatutako araudi aldaketa (aztergai den populazioa zabaltzen duena), eta, bestetik, 2020ko osasun-larrialdiaren eraginez sortutako salbuespenezko egoera (gizarte- eta lan-egoera bortizki aldatu duena).

1.4.4. Datuen tabulazioa

Datu guztiak tabulatu dira, gizonzkoen dagozkienak eta emakumezkoen dagozkienak. Ondorioz, hiru zati atera dira taula bakoitzean.

Lan-istripuak bitan banatu dira: **lanaldian gertatutako istripuak** eta *in itinere* istripuak. Lanaldian gertatutako istripuen artean, ohiko lantokian, beste lantokiren batean edo lan-arrazoiak direla-eta joan-etorrietan zehar gertatutakoak sartu dira; *in itinere* istripuak lanera joatean edo lanetik bueltatzean gertatutakoak dira.

Era berean, baja eragin duten istripuak sartu dira taula batean, lesioaren izaeraren arabera bitan sailkatuta: istripu **traumatikoak** eta **ez traumatikoak**. Ez traumatikoetan, bihotzekoen ondoriozko lesioak, istripu zerebrobaskularrak eta traumatikoak ez diren beste patologia batzuk sartzen dira, eta gainerako istripuak traumatikotzat hartzen dira.

2.

Lanaldian eta *in itinere* gertatutako lan-istripuak

2.1. Zifra absolutuak eta intzidentzia-indizeak. 2018-2019 alderaketa

Lanaldian gertatu eta baja ekarri zuten lan-istripuak, lan-agintaritzari jakinarazitakoak, 33.029 izan ziren, guztira. 2018. urtean, 29.879 istripu zenbatu ziren (LI-1 taula). Gizonezkoek izandako istripuek gora egin zuten: 2018an, 22.176, eta 2019an, 24.960. Emakumezkoek izandakoek ere bai: 2018an, 7.703, eta 2019an, 8.069.

Bi aldiak konparatuta, lanaldian gertatu eta baja eragin zuten istripuak areagotu egin ziren; zehazki, 3.150 gehiago izan ziren 2019an; hau da, % 11 gehiago, 2018. urtearen aldean. Istripu-gehikuntza horretan, 2.784 gizonezko langileenak izan ziren (% 13), eta 366 emakumezko langileenak (% 5).

Hala ere, lanaldiko istripuak eta langileen populazioa lotzean (LI-7 taula), datuek erakusten dute intzidentzia-indizeak (baja izan zuten langile kolpatuak 1000 langile bakoitzeko) behera egin zuela, 37,55etik 35,09ra, hau da, % 7ko beherakada izan zela. Sexuaren arabera intzidentziaren aldakuntza desberdina izan zen. Hala, gizonezkoen dagokiena 54,75 zauritutik 50,79 zauritura igaro zen, mila langileko. Emakumezko langileen kasuan, berriz, beherakada txikiagoa izan zen (2018an, 19,72, eta 2019an, 17,94).

2019an baja eragindako 4.128 *in itinere* istripu gertatu ziren, guztira, eta, hortaz, % 8ko gorakada izan zen 2018. urteko datuaren aldean (LI-6). Bai gizonezkoek bai emakumezkoek istripu gehiago izan zituzten (% 8ko gorakada bi taldeetan), baina intzidentzia-indizeak aintzat hartuta, gizonezkoen istripu-tasak % 11 egin zuen behera 2018arekin alderatuta.



Emakumezkoen kasuan, intzidentzia-indizea aurreko urteko bera izan zen (5,53 zauritu mila langileko). (LI-7 taula).

Gogoratzekoa da biztanle gehiago hartu direla aztergai aurreko urteekin alderatuta (ikusi «Metodologia»), eta, faktore hori izan daiteke, printzipioz, sisteman zenbatutako istripu kopuruak gora egin izanaren arrazoia. Alabaina, istripuen kopuruak gora egin izanak ez zuen intzidentzia handiagorik ekarri; izan ere, estatistikei dagokienez, azterketara gehitutako populazioaren jokaera (2019ko urtarilaren 1etik aurrera laneko istripu eta gaixotasunen babesa eskuratu duten langileak) desberdina izan da aurreko urteetan aztertu izan den populazioaren jokaerarekin alderatuta (data horren aurretik gorabehera horien babesa zuten langileak).

LI-1etik LI-12ra bitarteko tauletan, 2018 eta 2019. urteetan lanaldian nahiz *in itinere* gertatutako istripuen kopuruak jaso dira, betiere baja eragindakoak, lurraldearen, sektorearen eta lesio-mailaren arabera sailkatuta. Era berean, istripu ez traumatikoen zifrak jaso dira, aldagai horien arabera sailkatuak, bai eta dagozkien intzidentzia-indizeak ere.

2019an, hau izan zen lanaldian baja eragin zuten istripuen kopurua, lesio mailaren arabera sailkatuta: 32.845 istripu arin, 160 larri eta 24 heriotza-istripu. Horrek esan nahi du istripu arinek % 11 egin zutela gora (% 13 gizonezkoek izandako istripuek, eta % 5 emakumezkoek izandakoek), eta % 1 egin zutela behera istripu larriek, orotara (% 1 egin zuten gora gizonezkoek izandako istripu larriek, eta, aldiz, % 11 behera emakumezkoek izandakoek). Heriotza-istripuei begira, 2018tik 2019ra, 30etik 21era igaro ziren gizonezkoetan (% 30eko beherakada), eta 2tik 3ra emakumezkoetan (LI-6 taula).

Baja eragin zuten *in itinere* istripuei dagokienez, 2019an, 4.083 istripu arin, 41 larri eta 4 heriotza-istripu izan ziren. Datu horiek erakusten dutenez, istripu arinek % 8 egin zuten gora, larriek % 11 eta heriotza-istripuek % 33. Istripu larrien bilakaera hobea da emakumezkoetan; izan ere, % 6 jaitsi zen kopurua. Gizonezkoen istripu larrien kopuruak, aldiz, % 26 egin zuten gora. Istripu arinei dagokienez, bi taldeetan izan zen % 8ko igoera. Azkenik, *in itinere* heriotza-istripuen kasuan, gizonezkoetan bat gehiago izan zen, eta emakumezkoetan ez zen horrelako istripurik gertatu (LI-6 taula).

Lanaldian gertatutako istripuek gora egin zuten 2019an, sektore guztietan (% 2 nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren sektorean; % 13 industrian, % 27 eraikuntzan eta % 6 zerbitzuetan). Gizonezkoek izandako istripu kopururik handiena industriaren sektorean gertatu zen (10.806 istripu), baina istripu kopuruaren hazkunderik handiena eraikuntzan gertatu zen (% 27ko gorakada). Emakumezko langileek izandako istripuen % 87 zerbitzuen sektorean gertatu zen (7.008 zauritu); hain zuzen ere, % 3ko hazkundera gertatu zen 2018. urtearen aldean (LI-1 taula).

Sektoreka, *in itinere* istripuek gora egin zuten kopuru absolututan, 2018ko datuekin alderatuta, bai gizonezkoen bai emakumezkoen artean (LI-1 taula). Zerbitzuen sektorean izan zen apalena gorakada hori: % 4 gizonezkoetan, eta % 5 emakumezkoetan.

Lanaldiko intzidentzia-indize globalari begira (LI-2 taula), jaitsierak izan ziren nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren sektorean, bai eta eraikuntzaren eta zerbitzuen sekto-

rean ere (% 8, % 20 eta % 10, hurrenez hurren). Industria-sektorean, ordea, % 6 egin zuen gora. Gizonezko langileei begira, intzidentzia-indizeak industria-sektorean soilik egin zuen gora (% 7), eta zerbitzuen sektoreak izan zuten intzidentziarik txikiena (33,01 zauritu mila langileko). Nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzan eta industrian indizeak antzekoak izan ziren (79,16 eta 79,74 zauritu milako, hurrenez hurren). Intzidentziak nabarmen egin zuen behera eraikuntzan: % 22 hain zuzen (2018an, 96,17 izan ziren mila langileko, eta 2019an, 74,71). Bestalde, emakumezkoen artean, lanaldiko intzidentzia-indizeak gora egin zuen sektore guztietan, zerbitzuetan izan ezik, horretan % 10 egin baitzuen behera (19,28 milako 2018an, eta 17,42, 2019an). Emakumezkoei begira, eraikuntzan izan intzidentziarik txikiena (6,89 langile zauritu mila langileko, lanaldian).

2019an, 50,4 istripu ez traumatiko gutxiago gertatu ziren 2018. urtearen aldean, hots, % 7 gutxiago. Gizonezkoek izan zituzten istripu gehien (40 istripu 2019an, eta horrek adierazten du % 15eko beherakada izan zela 2018. urtearen aldean). Emakumezkoek 10 istripu ez traumatiko izan zituzten, hau da, 2018an baino 3 istripu gehiago. Intzidentziari dagokionez, beherakada globala 0,02 izan zen milako (LI-3, LI-4 eta LI-12 taulak).

2.2. Lurralde historikoa

Arabak % 12 egin zuten gora lanaldian gertatutako istripuek (649 istripu gehiago); Bizkaian, % 10 gora (1.534 istripu gehiago), eta Gipuzkoan, % 11 (967 gehiago). Gorakada gizonezkoen istripuei zor zaio: Araban, % 85; Bizkaian, % 91, eta Gipuzkoan, % 87. Hala ere, zenbaki gordinei beharrean lurralde bakoitzean izandako intzidentzia-indizeei erreparatzen badiegu, lurralde guztietan jaitsi zen intzidentzia-tasa. Hiru lurraldeen artean, Araban izan zen txikiena beherakada hori (% 2 gutxira, gizonezkoetan ere % 2 eta emakumezkoetan % 4). Bizkaian, % 7 jaitsi zen intzidentzia-tasa (% 8 gizonezkoetan eta % 10 emakumezkoetan), eta Gipuzkoan % 8 (% 9 gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan) (LI-9 eta LI-10 taulak).

In itinere joan-etorrietan, bilakaera heterogeneoa izan zen, datuak lurraldearen nahiz sexuaren arabera alderatuz gero. Hala, Gipuzkoan, *in itinere* istripuen kopuruak % 14 egin zuen gora, guztira; Araban, % 11, eta Bizkaian, azkenik % 3. Gizonezkoetan, Arabako istripuen kopuruak % 1 egin zuen behera, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, gora, % 9 eta % 14, hurrenez hurren. Bestalde, emakumezkoen artean, Arabako istripuen kopuruak % 23 egin zuen gora, Gipuzkoan % 14 gora, eta Bizkaian, aldiz, 4 gutxiago izan ziren. Intzidentzia-tasari erreparatuz, beherakada orokorra izan zen datu globaletan, lurraldeka eta sexuaren arabera, Arabako emakumezkoetan izan ezik, kasu horretan % 9ko igoera izan baitzen (mila langileko 5,71 izatetik 6,23 izatera) (LI-9 eta LI-10 taulak).

Lanaldian gertatutako istripuen aldaera bateratua lurraldearen eta jarduera-sektorearen arabera konparatzen badugu, Araban gertatutako istripuen hazkundea (5.423, 2018an, eta 6.072, 2019an), oro har, zerbitzuen sektoreko langileen istripuen gorakadagatik (269 istripu gehiago, % 17ko hazkundea) eta industriako gorakadagatik (212 gehiago, % 11ko hazkundea) gertatu zen. Dena den, eraikuntza-sektorean ere gertatu zen hazkunde hori (% 16),



2018. urtearekin alderatuta (71 istripu gehiago). Emakumezko langileen kasuan, zifrak ez ziren maila horretaraino iritsi, eta bi sektore hauetan pilatu ziren batez ere: zerbitzuetan (69 istripu gehiago, % 6ko gorakada 2018ko datuekiko) eta industrian (22 istripu gehiago, % 12ko hazkundera) (LI-5 taula).

Bizkaian, lanaldian gertatutako istripuen kopuruan izandako igoera, batez ere sektore hauetan gertatu zen: industrian (529 istripu gehiago, % 12ko hazkundera), eraikuntzan (434 istripu gehiago, % 25eko gorakada) eta zerbitzuetan (401 istripu gehiago, % 8ko gorakada). Gainera, zerbitzuen sektoreko langileek ere aurreko urtean baino 88 istripu gehiago izan zituzten (% 2ko gorakada), eta industriakoek, 51 istripu gehiago (% 12ko gorakada) (LI-5 taula).

Gipuzkoan, lanaldian gertatutako istripuen kopuruan izandako hazkundera sektore hauetan gertatu zen batez ere: industrian (466 istripu gehiago, % 14ko gorakada), eraikuntzan (278 istripu gehiago, % 35eko hazkundera) eta zerbitzuetan (118 istripu gehiago, % 5eko hazkundera). Emakumezkoek lanaldian izandako istripuen kopuruak, sektoreka banatuta, apalagoak izan ziren, baina nabarmentzekoa izan zen emakumezkoek nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren sektorean izandako istripuen gorakada (11 istripu gehiago, % 79ko hazkundera), eta industriako langileena (47 istripu gehiago, % 19ko hazkundera). Alderdi positiboan artean, nabarmentzekoa izan zen gizonezko langileek istripu gutxiago izan zituztela nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren sektorean (21 gutxiago, % 12ko beherakada) (LI-5 taula).

Lanaldian gertatutako istripu larri eta heriotza-istripuei dagokienez, Araban bilakaera hobea izan zen (19 istripu gutxiago) beste bi lurraldeetan baino: Bizkaian horrelako 3 istripu gehiago izan ziren, eta Gipuzkoan, 6 gehiago. Araban, gizonezkoek 16 istripu larri gutxiago izan zituzten industrian, eta 4 gutxiago zerbitzuetan; emakumezko langileek, berriz, 3 istripu larri gutxiago izan zituzten zerbitzuetan. Bizkaian, bestalde, emakumezko langileek istripu larri eta heriotza-istripu gutxiago izan zituzten (13 izan ziren 2018an, eta 6, 2019an), eta lurralde horretako langile gizonezkoek, aldiz, 4 istripu gehiago izan zituzten nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzaren, 8 gehiago industrian, eraikuntzan istripu kopuru bera, eta zerbitzuetan 2 gutxiago. Gipuzkoan, industriako langile gizonezkoek, istripu larri eta heriotza-istripuetan, 2 gutxiago izan zituzten, eta zerbitzuetakoek, 3 gutxiago. Aitzitik, lurralde horretako industria eta zerbitzuetako emakumezko langileek istripu larri eta heriotza-istripu gehiago izan zituzten aurreko urtean baino: 3 gehiago industrian eta 4 gehiago zerbitzuetan (LI-5).

In itinere istripuen hazkunde globala hiru lurraldeetan gertatu zen, oro har, nahiz eta kopuruetan aldeak egon batetik bestera. Hala, Bizkaian 68 istripu gehiago gertatu ziren (% 3ko gorakada), Araban 80 gehiago (2018an baino % 11 gehiago), eta Gipuzkoan 153 gehiago (% 14ko hazkundera). Arabako hazkundera batez ere industriako emakumezko langileetan (14 istripu gehiago, % 38ko gorakada) eta zerbitzuetako emakumezkoetan (64 gehiago, % 20ko hazkundera) gertatu zen. Bizkaian, aldiz, hazkunderik nabarmenenak bi sektore hauetan gertatu ziren: zerbitzuetako gizonezkoetan (39 istripu gehiago, % 8ko gorakada), eta industriako emakumezkoetan (30 gehiago, % 48ko hazkundera). Gipuzkoan, bi hauetan gertatu ziren hazkunderik handienak: industriako gizonezkoetan (50 zauritu gehiago, % 35eko gorakada) eta zerbitzuetako emakumezko langileetan (77 gehiago, % 13ko gorakada). Nolanahi ere,

emakumezko langileen *in itinere* istripuen kopurua hiru lurraldeetako gizonezko langileek ja-sandako istripuen kopurua baino handiagoa izan zen, beste urtebetez.

Bestalde, *in itinere* istripu larrien eta heriotza-istripuen bilakaera positiboa izan zen osota-sunean, baita emakumezko nahiz gizonezko langileetan ere (LI-5).

Lurralde bakoitzeko intzidentzia-indizeak konparatzen baditugu, Gipuzkoan izan zen istri-pu-tasa txikiena, bai lanaldian, bai *in itinere*, hala emakumezkoen nola gizonezkoen artean. Nolanahi ere, *in itinere* intzidentziaren bilakaera aldekoa izan zen, Arabako emakumezko langileen kasuan salbu; izan ere, % 9ko igoera izan zuten (LI-9, LI-10 eta LI-14).

2.3. Gizonezko eta emakumezko langileen ezaugarriak

2.3.1. Adina (LI-19 taulatik LI-23 taulara)

Osotara, lanaldian gertatutako eta baja eragindako istripu gehienak 25-44 adin-tartean gertatu ziren (16.029), nahiz eta intzidentzia-tasa 16-24 urte bitarteko langileen artean handiagoa izan zen (43,95 hain zuzen, eta 25-44 adin-tartekoena, 38,06; 45 eta gehiagoko adin-tarteko langileena, berriz, 31,66 izan zen). Hala ere, 45 urte edo gehiagoko emakumezko langileek izan zuten kopururik handiena lanaldiko istripuetan (4.185), nahiz eta haiei dagokien intzidentzia-indizea (18,33 zauritu mila langileko) 25-44 urte bitar-teko emakumezkoen taldetik hurbilago izan (17,12 mila langileko), gazteen taldetik baino (21,94). Gizonezkoen kasuan, lanaldiko intzidentzia-indizea beherakorra izan zen adinean gora egin ahala (61,16 gazteen artean, 57,44 erdiko tartean eta 43,91 adinekoen artean) (LI-19 eta LI-20). Hala gizonezkoen nola emakumezkoen artean, lanaldiko istripu larri eta heriotza-istripu gehien 50 eta 54 urte arteko langileek izan zituzten (LI-21).

In itinere gertatu eta baja eragindako istripuei dagokienez, 45 urte eta gehiagoko emaku-mezkoek izan zituzten istripu gehien (1.164 istripu). Jarraian, 25-44 urte bitarteko emakumezkoak eta gizonezkoak datoz (1.028 eta 997, hurrenez hurren). Hala ere, bost ur-teko taldeak aintzat hartuta, intzidentzia-indizerik handienak (LI-22) 20 eta 24 urte arteko emakumezkoek izan zituzten (7,19 istripu mila langileko), baita 25-29 urte bitarteko gizo-nezko gazteenek (5,89 zauritu, milako), 55-59 urte bitarteko emakumezkoek (5,75 zauritu, milako) eta 16-19 urte bitarteko emakumezko gazteek ere (5,72, milako) (LI-22).

LI-23 taulak erakusten duenez, gizonezkoek izan zituzten, batez ere, istripu ez traumati-koak (38 istripu, istripu guztien % 80). 45 urte eta gehiagoko gizonezkoek eta emakumez-koek ere izan zituzten horrelako istripuak.

2.3.2. Kontratu mota (LI-24 taulatik LI-27 taulara)

Lanaldian zein *in itinere* gertatu eta baja eragindako istripuetan, lanaldi osoko kontratu mugagabea zuten zauritutako langile gehienek (istripu guztien % 53 eta % 50, hurrenez hurren), eta, ondoren, lanaldi osoko aldi baterako kontratua (% 27 eta % 24, hurrenez hu-



rren). Bestetik, lanaldi osoko kontratu mugagabea duten langileen artean, baja eragindako istripu gehien 45 urte eta gehiagokoen taldeak izan zuten; lanaldi osoko aldi baterako kontratua dutenen artean, berriz, 25-44 adin-taldekoek izan zuten istripu gehien. Lanaldiko zein *in itinere* istripuez ari gara.

Istripuen kopuruari erreparatuz gero, lanaldi osoko kontratu mugagabea zuten langileek izan zuten istripu gehien, baina, hala ere, gizonezkoen kasuan, intzidentzia-indize handiagoa izan zuten «lanaldi osoko aldi baterako» kontratua zuten langileek, bai lanaldian gertatutako istripuei (93,26 istripu milako), bai *in itinere* gertatutakoei begira (6,34). Lanaldiko istripuei dagokienez, intzidentziarik handieneko bigarren kontratu-mota izan zen aldizkako finko mugagabea (59,92), baina alde oso txikiarekin lanaldi osoko kontratu mugagabeekiko (59,29).

Emakumezkoen kasuan, lanaldiko istripuei dagokienez, intzidentziarik handieneko kontratu-motak izan ziren, ordenaren arabera, lanaldi osoko aldi baterakoak (27,84), aldizkako finko mugagabeak (27,26) eta lanaldi osoko mugagabeak (22,40). Magnitudeek adierazten duten legez, emakumezkoen intzidentzien arteko aldea (16,20ko heina) askoz txikiagoa izan zen gizonezkoen artekoa baino (67,92ko heina).

2.3.3. Antzinasuna (LI-28)

Ezarritako antzinasun-taldeak ez dira denboraren banaketa homogeenok; talde horien helburua da lan-kontratazioari lotutako momentu kritikoei erantzutea, bai eta, batetik, kontratu laburrak dituzten langileen, eta, bestetik, haien lanpostuetan esperientzia duten gizonezko/emakumezko langileen istripu-tasak islatzea ere.

Lanaldian gertatutako istripuen % 33 eta *in itinere* gertatutakoen % 31 lanpostuan urtebete baino gutxiagoko esperientzia zuten gizonezko/emakumezko langileei gertatu zitzaizkien.

Lanaren lehenengo hilabetean gertatutako istripuak lanaldian gertatutako istripu guztien % 8, *in itinere* gertatutakoen % 7 eta istripu larrien % 10 izan ziren.

2.3.4. Gizonezko edo emakumezko langilearen lanbidea (LI-29)

Gizonezkoetan, 8.513 istripu izan zituzten talde hauetako langileek: «7. taldea: Manufaktura-industrietan eta eraikuntzan diharduten artisau eta langile kualifikatuak (instalazio-eta makineria-operadoreak salbu)». Istripu horiek lanaldietan gertatutako istripu guztien % 34,1 izan ziren. *In itinere*, aldiz, aipatutako 7. taldeko langileek 392 istripu izan zituzten, eta antzeko istripu kopurua izan zuten 8. taldekoek («Instalazioetako eta makinetako operadoreak, muntatzaileak»), 352 hain zuzen. Jarraian, 5. taldekoek («Zaharberritze-zerbitzu, zerbitzu pertsonal eta babes-zerbitzuetako langileak eta dendetako saltzaileak»), 340 istripu izan zituzten, eta 9. taldekoek («Oinarritzko lanbideak»), berriz, 321 istripu.

Emakumezkoen begira, 5. taldeko langileek, alegia, «jatetxe-zerbitzuetako, zerbitzu pertsonaletako eta segurtasun-zerbitzuetako emakumezko langileek eta saltzaileak» 3.676 istripu izan

zituzten lanaldian, eta 805 *in itinere*. Hain zuzen ere, emakumezkoek izandako istripuen kopururik handiena jasan zuen taldea izan zen (lanaldian emakumeek izandako istripuen % 45,6 eta *in itinere* izandako istripuen % 34,6).

2.4. Enpresaren prebentzio-kudeaketaren ezaugarriak

2.4.1. Enpresaren kontratazio-modalitatea (LI-30)

Lanaldian istripua izan zuten langileen % 69k eta *in itinere* istripua jasan zuten % 71k enpresa nagusi batekin zuten kontratua. Lanaldian gizonezkoek izaniko istripuen % 6 kontrata- eta azpikontrata-enpresetan gertatu zen; emakumezkoen kasuan, berriz, istripuen % 8.

2.4.2. Arriskuen ebaluazioa (LI-31)

Lanaldian gertatu eta baja eragindako istripuen % 64an, gutxi gorabehera, enpresak arriskuen ebaluazioa egin zuen. Istripuen % 17an, ordea, enpresak ez zuen ebaluaziorik egin, eta % 18an, ez zen horri buruzko daturik jaso.

Horrez gainera, nabarmentzekoa da emakumezkoek lanaldian izandako istripu larrien eta heriotza-istripuen % 43tan soilik egin zela arriskuen ebaluazioa. Gizonezkoen kasuan, berriz, istripuen % 71n egin zen ebaluazioa.

2.4.3. Prebentzio-modalitatea (LI-32)

Lanaldian gizonezkoek izandako istripuen % 75ean eta emakumezkoek izandakoen % 59an, enpresak kanpoko prebentzio-zerbitzu bat kontratatuta zuen, baina ez nahitaez espezialitate guztietara zuzendutakoa.

Bigarren modalitate gisa, lanaldian istripuren bat jasandako emakumezkoen % 22ren eta gizonezkoen % 13ren enpresek prebentzio-zerbitzu propioa zeukaten.

Lanaldian emakumezkoek izandako istripuen % 4an eta gizonezkoek izandakoen % 3an, enpresak ez zuen inolako prebentzio-modalitaterik.

2.5. Istripuaren ezaugarriak

2.5.1. Istripuaren desbideratzea, forma edo kontaktua (LI-33 eta LI-34)

Lanaldian gertatutako istripuen desbideratzeari dagokionez (istripuaren aurretik izandako gertaera ezohikoa), talderik ugariena –bai gizonezkoen, bai emakumezkoen kasuan– 7. taldea izan zen, hots, «Gorputz-mugimendua, ahalegin fisikoaren ondoriozkoa edo ahale-



gin fisikoarekin»; 6.336 eta 2.345 istripu, hurrenez hurren (gizonezkoek izandako istripuen % 25,4, eta emakumezkoek izandakoen % 29).

Istripuaren forma edo kontakturik ohikoena honako hau izan zen: «7. Gehiegizko ahalegin fisikoa, trauma psikikoa, erradiazio, zarata, argi edo presioarekiko esposizioa»; gizonezkoek izandako 8.395 istripu (istripu guztien % 33,6), eta emakumezkoek izandako 3.233 istripu (istripu guztien % 40,1). Kasu horien % 58,7an, aurretik izandako gertaera ezohikoa honako hau izan zen: «7. Gorputz-mugimendua, ahalegin fisikoaren ondoriozkoa edo ahalegin fisikoarekin».

Desbideratzea eta forma batera aztertzen baditugu, hau izan zen istripurik ohikoena (gizonezkoek izandakoen % 19 eta emakumezkoek izandakoen % 23): mugimendu bat ahaleginarekin, gehiegizko ahalegin muskulu-eskeletikoa dakarrena. Bi taldeetan, honako hau izan zen bigarren mota ugariena: «azalera baten kontra zapaltzea, erorikoaren ondorioz», gizonezkoek izandako istripuen % 10,1 eta emakumezkoek izandako istripuen % 17,8.

Gainera, emakumezkoek izandako istripuen % 20,6an «ahalegin fisikorik gabeko gorputz-mugimendua» gertatu zen, eta gizonezkoen istripuen % 21,5ean, makinaren kontrola galtzea gertatu zen (orokorrean).

2.5.2. Trafikoarekin loturiko istripuak, lanaldian (LI-35)

Trafiko-istripuak lanaldian gertatutako istripu guztien % 2,7 izan ziren, baina aldeak izan ziren gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Izan ere, trafiko-istripuen % 2,9 gizonezkoek izan zuten, eta % 1,9, berriz, emakumezkoek.

Lanaldian trafikoarekin lotuta gertatutako istripu larri eta heriotza-istripuen % 91,6 izan zuten gizonezkoek.

2.5.3. Trafikoarekin loturiko istripuak, *in itinere* (LI-36)

Trafiko-istripuak *in itinere* istripuen % 49,3 izan ziren. Gizonezkoek gehiago izan zituzten horrelako istripuak emakumezkoek baino. Gizonezkoek *in itinere* istripuen % 60,3 trafiko-istripua izan zen, eta, emakumezkoen kasuan, % 40,7.

In itinere istripu larri eta heriotza-istripu guztien % 82,1 gizonezkoek izan zuten, eta, emakumezkoek, % 17,9.

3.

Laneko istripuak izateko arriskua sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren, jarduera-sektorearen eta kontratu motaren arabera

Aztertu da 2019ko urtarrila eta abendua bitartean istripua sufritu izanak zer-nolako lotura duen bost faktore hauekin: lantokia dagoen lurraldea, enpresa enplegatzailearen jarduera-sektorea eta langilearen sexua, adina eta kontratazio mota. Lanaldian gertatu eta baja eragin duten istripuak oro har aztertu dira, baita gizonezko eta emakumezko langileen istripuak ere.

Metodologiari buruzko atalean adierazi denez, gorabeheren adierazleak eta gorabeheren adierazleen arazoak Poissonen erregresio-eredu baten bidez lortu dira, aurreko paragrafoan aipatutako aldagaiak egokituz.

3.1. Lanaldian gertatutako lan-istripuen azterketa orokorra. (Ikus LI-37 taula)

Gainerako aldagaiak egokitu ondoren, ondorioztatu da gizonezkoek emakumezkoek baino arrisku handiagoa zutela lanaldian gertatutako istripuetan, bikoitza baino handiagoa.

Lurraldez lurralde, arriskua zertxobait handiagoa izan zen Bizkaian, eta Gipuzkoan zertxobait txikiagoa, biak Arabarekin alderatuz (azken lurralde hori hartu da neurri gisa). Bizkaiaren kasuan, gizonezkoek %2 handiagoa izan zuten arriskua Arabakoekin alderatuz, nahiz eta estatistikoki frogatu ez, eta %9 altuagoa Gipuzkoakoek izan zuten arriskua



baino (hauxe estatistikoki frogatua). Gipuzkoako langileek Arabakoek baino arrisku txikiagoa izan zuten: gizezkoek % 7 txikiagoa, eta emakumezkoek, % 19 txikiagoa. Gipuzkoako jokabide-ezberdintasun hori estatistika aldetik adierazgarria izan zen beste bi lurraldeen aldean.

Enpresaren jarduerari begira, arrisku handiena izan zuen sektorea nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza- sektorea izan zen oro har, gizezkoen zein emakumezkoen kasuan.

Gizezko langileen datuei erreparatuta, bigarren sektore arriskutsuena eraikuntza izan zen, % 60ko arriskua erakutsi zuen, aipatutako sektorearekin alderatuz. Industrian are arrisku txikiagoa izan zen gizezkoen kasuan (nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-sektorekoaren erdia). Azkenekoz zerbitzuen sektoreak arriskugarritasun txikiena agertu zuen, lehen sektorekoaren laurdena.

Paradoxikoki, eraikuntzan lan egiten duten emakumeek arrisku txikiena erakutsi zuten: nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza- sektorearenaren %15. Segidan datoz industria eta zerbitzuen sektoreak, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza baino arrisku txikiagoarekin (%52 eta %67 txikiagoak, hurrenez hurren). Dena den, zerbitzuen sektoreak, nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza- sektorearekin neurtuz, emakumezkoen kasuan gizezkoen kasuan baino arrisku handiagoa izan zuen.

Sexuen araberako alde horiek gizezkoen eta emakumeek betetzen dituzten okupazioekin eta zereginekin lotu behar ditugu, gizezkoen zein emakumezkoen kasuan, okupazio eta zereginekin horiek bideratuko baikaituzte jarduera ekonomiko eta enpresa mota jakin batera.

Arrisku handiena izan zuen kontratu-mota aldi baterakoa izan zen, kontratu mugagabe dagoen istripu-tasa baino handiagoa erakutsi zuen, %35 handiagoa gizezkoen kasuan eta %16 emakumezkoen kasuan. Autonomoek arrisku txikiena agertu zuten arlo honetan, ustez, istripu gutxiago aitortu zituztelako berez izandakoak baino, asaguru-araubidea dela-eta.

Gizezko edo emakumezko langileen adin-taldeak aintzat hartuta ere, aldeak izan ziren batzuen eta besteen arriskuan, eta ezberdina izan zen gizezkoen eta emakumezkoen kasuan. Hala, arriskurik txikiena gizezkoen nagusienek izan zuten (45 urte eta gehiagokoek), 16-24 urte bitarteko gazteek baino % 19 gutxiago. Tarteko adinekoek ere erdi-mailako arriskua izan zuten (gazteenek baino % 7 gutxiago).

Hala ere, emakumezkoen artean arrisku handiena, nahiko modu parekatuan gainera, gazteenek eta nagusienek erakutsi zuten; adin tarteko taldeak, berriz, %21 baino arrisku txikiagoa agertu zuten.

3.2. Lanaldian izandako istripu larrien eta heriotza-istripuen azterketa. (LI-38)

Gizezkoen artean istripu larria ala hilgarria izateko arriskua emakumezkoen artekoaren bikoitza izan zen. Nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza- sektoreak istripurik larrienak

3. LANEKO ISTRIPUAK IZATEKO ARRISKUA SEXUAREN, ADINAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN...

izateko arrisku handiena izan zuen, eta jarraian, eraikuntzak, industriak eta zerbitzu sektoreak, hurrenkera horretan. Kontratazio mugagabeak erakutsi zuen arriskurik txikiena, bai eta 25-44 adin-tarteko langileek ere. Lurraldeei begira, Bizkaian eta Gipuzkoan arrisku txikiagoa agertu zen, estatistikoki frogatu gabe. Istripu larriak ala hilgarriak gutxi izateak konfidantza-tarte oso zabalak eragin zituen, eta, ondorioz, ezaugarrien araberako konklusioak epelagoak dira.

4.

2000-2019 bilakaera

LI-39 taulatik LI-43 taulara bitartekoak bikoiztu egin dira, urteko datuak bi erreferentziaren arabera aurkezteko: batetik 2009. urtea oinarritzat hartuta, (halaxe agertzen dira 2017ko eta 2018ko txostenetan), eta, bestetik, 2019a oinarritzat hartuta (taula berberen «bis» bertsioa).

«Bis» bertsioko tauletan 2000tik 2019ra eskueran dauden datuak aintzat hartuta, baja eragin duten istripuen seriea aztertu da. Erreferentziazko urtea 2019a hartu da (oinarri-urtea), eta hori erabiliko da hurrengo txostenetan. Hala, zenbaki indizeek adierazten dute zer proportzio dagoen urte jakin bateko istripu-tasaren balioaren eta 2019an izaniko balioaren artean (100 balioa), ezaugarri jakin baten edo batzuen arabera.

2004. urtea baino lehenagoko datuak (2009a oinarri-urtetzat harturik) 2017ko urteko txostenetan jaso ziren. Aurtengoan, 2004. urtetik aurrerako serieak jaso dira, informazioa hobeto bistaratzeko.

Bestalde, taula horietako datuak grafikoetan adierazi dira (1etik 19ra arteko irudiak).

4.1. Bilakaera orokorra (LI-39-bis eta LI-40-bis)

Lehenik eta behin, LI-39 taulan ikus daiteke istripuen guztizko kopuruak beheranzko joera dela, seriearen hasieran 55.212 istripu izan baitziren (% 49 gehiago 2019. urtean baino) eta 2019an 37.157 istripu gertatu baitziren (100 balioa, oinarri-urtea). 2019ko istripuen datuak eta balioak 2010ekoan antzekoak izan ziren, baina orduan baino

200.000 langile gehiagorekin (batez beste, 941.187 langile 2019an, eta 746.743 langile 2009an).

2013an izan zen lanaldian gertatutako istripuen kopururik txikiena; 24.318 istripu gertatu ziren urte hartan, eta horietako 17.810 gizonetzko langileek izan zituzten. Hala ere, 2012an gertatu zen lanaldiko istripurik gutxien emakumezkoetan: 6.316 istripu.

In itinere istripuak gutxitzen joan ziren 2014ra arte, gizonetzkoen kasuan (1.311 istripuko minimoa, 2019ko istripuen % 83), eta, ondoren, istripu kopuruak gora egin zuen 2019a arte (1.803 istripu). Emakumezkoen istripu-kopuruan gorabeherak izan ziren 2009-2019 aldian; istripu gutxien 2011n gertatu zen (1.756 istripu, 2019ko istripuen % 76), eta gehien, 2019an: 2.325 istripu.

